

**ONDARE NATURALA AKTIBOKI KONTSERBATZEKO  
JARDUEREN EBALUAZIOA, EUSKADIKO AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO LURRALDEA ZAINTEKO AKORDIOETAN  
DIRUZ LAGUNDUTAKOAK, 2011-2016 ALDIAN**

**AMAIERAKO TXOSTENA 2018ko UZTAILA**



Javier Puertas Blázquez eta Diego García Venturak osatutako dokumentua, Eusko Jaurlaritzaren  
Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak kontratatuta

## **AURKIBIDEA**

### **1. Aurrekariak eta justifikazioa**

### **2. Helburuak**

### **3. Metodologia**

3.1 Proiektuak orokorrean ezaugarritzeko metodologia

3.2 Kontserbazio-estandarra aplikatzeko metodologia

### **4. Proiektuak orokorrean ezaugarritzea**

### **5. Proiektuak kontserbazio-estandarren bidez aztertzearen emaitzak**

5.1 Alderdi orokorrak

5.2 Plangintza

5.3 Exekuzioa

5.4 Ebaluazioa

5.5 Emaitzen laburpena

### **6. Gomendioak**

### **7. Erreferentziak**

### **8. Eranskinak**

I Azken deialdietan erabilitako memoria-eredua

## 1. Aurrekariak eta justifikazioa

Lurraldearen zaintza natura kontserbatzeko gizartearen esku-hartzea baitan hartzen duen formula da, jabego edo natura baliabideen erabiltzailearen eta gizarte zibil antolatuaeren (zaintzailtza-erakundeak deitutakoaren) arteko borondatezko akordio baten bidez –lurraldea zaintzeko akordioa–. Bertan ezartzen dira bi aldeen konpromiso eta esku-hartzeak, akordioaren helburu diren lurraldeen ondare-balioak kontserbatzeko. Natura Ondare eta Bioaniztasunari buruzko Legeak lurraldea zaintzea hala definitzen du: estrategia edo teknika juridiko multzoa, eta horien bidez esku hartzen dute lurraldearen jabego eta erabiltzaileek kontserbazioan eta natura, kultura eta paisaia balio eta baliabideen erabileran, zaintzailtza-erakundeak dira irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuak, lurraldea zaintzeko tekniken bidez horien kontserbazioan aktiboki parte hartzen dutenak. Zaintzeko akordioen azalera, babestutako eremuan baitan edo haietatik kanpo, hazi egin da azken urteotan, Estatu espainiarreko Lurraldea Zaintzeko Ekimenen 4. Inbentarioak islatzen duen moduan: 551.000 hektarea, aurreko inbentarioan baino 120.000 gehiago (Fundación Biodiversidad, 2015).

Hala, ingurumen-administrazio publiko hainbat formula probatzen hasi dira, lurraldea zaintzea sustatzeko, natura kontserbatzeko politika eta tresna publikoarentzako tresna osagarri gisa. Hainbat estrategien artean, hainbat tresna ari dira abian jartzen, hala nola, lurraldearen akordioetako kontserbazio-proiektu eta -ekintzak diruz laguntzea, Katalunia eta EAEn sustatutako ekimenak, eta, berriki, baita Nafarroako Foru Erkidegoan ere.

Eusko Jaurlaritzak 2011n diru-laguntzen programa publiko bat jarri zuen abian, Euskadiko Autonomia Erkidegoan lurralde zaintzeko akordioetan sartutako ondare naturala kontserbatzeko ekintzak garatzen laguntzeko. 2016 urtera arte garatu da, orduan hartu da kontuan beste erakunde, publiko eta pribatuek, garatutako kontserbazio-proiektuei administrazio publikoak emandako laguntzen ebaluazioa. Ekintza horiek babestutako espazio naturaletan lurraldea zaintzeko akordioen baitan garatutakoak ere barne hartzen ditu. Esku hartzen duten aldeei lagundu zaiela irizten da, jabegoari eta zaintzailtza-erakundeari.

Bestalde, lurraldea zaintzeko foro teknikoetan adierazten ari dira beharrezkoa dela naturaren kontserbazioari, orokorrean, eta babestutako eremuen natura ondare eta aniztasun biologikoari, zehazki, lurraldea zaintzeak egiten duen ekarpen eraginkorra zehaztea (Campos, S et al. 2015; FRECT, 2016).

Testuinguru horretan diseinatu da proiektu hau, eta horren helburua da diru-laguntza programaren eta horren emaitzen funtzionamendua aztertzea, natura ondarearen kontserbazioan egindako eta egiaztatutako aurrerapenak azaltzea, baita lurraldea zaintzeko akordioetan barne hartutako kontserbazio-jarduerak diseinatu eta exekutatzeko gomendio sorta eskaintzea ere.

Proiektu hau garatzeak EUROPARC-Españak sustatutako *Programa Sociedad y Áreas Protegidas 2020* ekimenaren gobernantza-ildoak ezartzen lagunduko du (EUROPARC-España, 2016), produktu horiek EAEn zein Estatu espainiarreko babestutako lurralde zein eremutan aplikatzekoak izan baitaitezke.

## 2. Helburuak

Proiektuaren helburuak honako hauek dira:

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurraldea zaintzeko akordioetan sartutako ondare naturala aktiboki kontserbatzeko jarduerak finantzatzeko diruz lagundutako programaren baitan 2011-2016 aldian finantzatutako proiektuak aztertzea.
2. Eremu babestuetan lurraldea zaintzeko akordioetan sartutako ondare naturala aktiboki kontserbatzeko ekintzei laguntza publikoak hobetzeko gomendioak eskaintzea.
3. Administrazioentzat zein zaintzailletza-erakundeentzat jardunbide egokien adibideekin eta gomendioekin gida edo erreferentzia-gida bat osatzeko oinarriak finkatzea.

### 3. Metodologia

Analisia hainbat fasetan antolatuta dago, eta horietako bakoitzak metodologia osagarriak ditu.

Lehendabizi, diru-laguntza bidez finantzaturako proiektuen espedienteen erreferentziazko dokumentuak berrikusi dira, hori baita garatutako proiektuen deskribapenak eta ezaugarriak aztertzekeo abiapuntua.

Bestalde, babestutako espazioetan kontserbaziorako kudeaketan EUROPARC-Españaren kalitate-estandarra berrikusi eta egokitu da (EUROPARC-España, 2011) aztergai ditugun diru-laguntzen deialdi bidez lagundutako kontserbazio-proiektuei aplikatzeko, eta alderdi orokorre, plangintzari, exekuzioari eta ebaluazioari aplikatzekoak diren analisi zehatzak definitu dira. Kontserbazio-estandarrak osatzean, kontserbazio-ekintzak ebaluatzeko erreferentziazko dokumentu tekniko eta zientifiko nagusiak berrikusi dira, zehazki babestutako eremuenak (besteak beste, CMP, 2004; Day J.C eta Laffoley D.A., 2006; Dudley, 2006; Hockings, M. et. al. 2000; IUCN-CMP, 2006; Rotherdam, 2001).

Azkenik, eta kontserbazio-proiektuen analisien emaitza modura, proiektuen deskribapena aztertu eta, bereziki, kontserbazio-estandarrekin ebaluatu ondoren, eta natura eta lurraldearen zaintzaren kontserbazioaren alorrean erreferentzia diren bestelako dokumentu eta argitalpenak berrikusi baino lehen, gomendio batzuk luzatu dira, babestutako eremu naturaletan lurraldea zaintzeko akordioetan sartutako ondare naturalen kontserbazio aktiborako jardueretarako laguntza publikoak hobetzeko.

Txosten honetatik eratorritako gomendioak proiektu-txostenen txantilo-proposamenean txertatu dira, eta hori 2015ean txertatutako eredia abiapuntu hartuta osatu da.

#### 3.1. Proiektuak orokorrean ezaugarritzeko metodologia

Proiektuak orokorrean deskribatu eta ezaugarritzeko honako parametro hauek hartu dira kontuan, besteak beste: deialdi publiko bakoitzean onartutako proiektu kopurua, proiektuak jaso dituzten erakundeak, onartutako diru-laguntza bidez laguntza publikoaren zenbateko ekonomikoa eta proiektuen ingurumen-gaia.

Azterketa hori egiteko honako informazio-iturri hauek berrikusi dira proiektuen espedienteetan: memoria teknikoa, exekuzio-memoria, aurrekontua, balantze ekonomikoa eta gastuen zerrenda, eta lurraldea zaintzeko akordioak.

#### 3.2. Kontserbazio-estandarra aplikatzeko metodologia

Prozesuaren bigarren zatia EUROPARC-Españaren kontserbazio-estandarraren metodologia deialdiak lagundutako proiektuei aplikatzea izan da. Babestutako espazio naturalen kontserbaziorako kudeaketaren kalitate-estandarra EUROPARC-Españaren kontserbazio-taldeak egindako akordio-dokumentu bat da, eta bertan biltzen da kontserbazio-ekintza bat kalitatezko hartzeko irizpide sorta.

Prozesuaren kalitatea jorratzen duen sistema da. Zehazki, kontserbazio aktiborako ekintzen kasurako, estandarra proiektuen plangintza-, exekuzio eta ebaluazio-faseetan oinarritzen da, eta beste alderdi orokor batzuk ere barne hartzen ditu.

Kontserbazio-ekintzen kalitate-estandarra kontserbazio-ekintza zehatzetan aplikatzeko eta programa eta planetan aplikatzeko proposatzen da. Kudeatzaileari laguntzeko proposatzen da, berau erakunde publikokoa edo pribatutakoa izanik ere, kontserbazio-proiektu eta -ekintzen plangintza eta exekuzioa diseinatu eta ebaluatzeko. Estandarra aplikatzeak bermatu egin behar du kontserbaziorako ahalegina prozedura logiko eta eraginkorren arabera egiten dela eta horiek, azken batean, kontserbazio-helburuak lortzen laguntzen dute.

Kalitate-estandarra kontserbazio-ekintzetan lurraldea zaintzeko proiektuen kalitatea ebaluatzeko tresna praktikoa gisa egokia den ebaluatu da. Egokitasun horren lehenengo berrikuspena egiteko, tresnaren arabera oinarritzeko diren irizpideak baino ez dira aplikatu, eta horietako batzuk, azkenik, baztertu edo berriz formulatu dira. Diru-laguntzen deialdiaren helburua zaintzeko akordio bakoitza kontserbazio aktiborako ekintzak direnez, estandarren irizpideak proiektu hauen kasuistika zehatzera egokitzea pentsatu da, horien berezitasun nagusia baita jabegoaren eta zaintzailetza-erakundearen arteko zaintzailetza-akordio bat dagoela.

Azterketak kontserbazio-estandarren oinarritzeko irizpideak aplikatu dira. Administrazio publikoak sustatu, diseinatu eta ezarritako proiektuekin lotutako alderdi espezifikoak ez dira kontuan hartu.

Guztira, 30 irizpide aztertu dira, proiektuak garatzeko lau fasetan bereizita: alderdi orokorrak (8), plangintza (14), exekuzioa (5) eta ebaluazioa (2). Irizpide guztientzat eskala bera aplikatu da: baiezko erantzuna, dagokion irizpidea bete dela irizten denean; ezezko erantzuna, dagokion irizpidea ez dela bete irizten denean; eta ez da aplikatu, dagokion irizpidea proiektuan ezin dela aplikatu irizten denean. Fase edo talde bakoitzean ehun (100) puntu lor daitezke, gehienez, eta zero (0), gutxienez.

## Alderdi orokorrak

Jarduera eta erabakien erregistroa

- Proiektuaren fase bakoitza erregistratzeko balio duten dokumentuak identifikatzea.
- Aldizkako jarduteko memoriak edukitzea (jarraipen-txostenak) edo, hala badagokio, hasierako proposamena aldatzearen inguruko informazioa.

Eskuragarri dagoen informazio onena erabiltzea

- Bibliografia zientifiko eta tekniko azpimarragarriena eta berriena kontsultatzea.

Erakundearen laguntza

- Nahitaezko baimen administratiboak eta lege-gaitasuna, proiektua garatzen den lekuan jarduteko.

Gizarte-laguntza

- Programatutako ekintzekin lotutako eragile sozialak identifikatzea.

Komunikazioa

- Hartzaile posibleak identifikatzea.

## Plangintza

### Epe luzerako helburuak

- Jarduera burutuko den ondare naturalaren espezie, habitat, ekosistema, prozesu edo elementuak esplizituki adierazi dira proiektuan.
- Proiektuaren azken xedea definitu da, baita eremu geografiko eta tematikoa ere.
- Egiaztatu da ez dagoela kontraesanik proiektuaren helburuen eta maila altuagoko beste plangintza-dokumentuen artean.
- Proiektua diseinatu eta inplementatzeko beharrezana edo aukera justifikatzen duten arrazoiak definitu dira.

### Diagnostikoa

- Elementu gakoei eragiten dien arazo, mehatxu eta aukerak xehe aztertzea.
- Egiaztatu da ez dagoela proiektuaren bideragarritasuna kolokan jartzen duen kanpoko baldintzarik.
- Lortu nahi den kontserbazio-egoera esplizituki definitu da.

### Helburu operatiboak

- Helburua operatiboak daude eta esplizituki adierazi dira.

### Jardueren definizioa

- Ekintza eta helburuen arteko lotura esplizitua.
- Ekintza bakoitzaren kostu ekonomikoa aurreikusi da.
- Finantzazio-iturriak esplizituki adierazi dira.
- Ekintzen ingurumen-ondorioak eta dagozkien neurri zuzentzaileak aurreikusi dira.
- Tokiko erabilera eta eskubideak kontuan hartu dira

### Jarraipena

- Ekintzen emaitza ezagutzeko adierazleak zerrendatu dira.



## Exekuzioa

Aurreikusitako ekintzak exekutatzea

- Ekintzak aurreikusitako kostuaren arabera egin dira.
- Ekintzak ezarritako epeetan amaitu dira.
- Jarraitutako ekintza eta urratsak dokumentu bidez erregistratu dira.
- Ekintzen exekuzioak ez ditu eragin negatiboak izan ingurumenari dagokionez, edota ez du proposamen teknikoan definitutako ingurumen-ondorioen irizpideekin betetzen.
- Ekintzen exekuzioak proposamen teknikoan ezarritako tokiko erabilera eta eskubideen irizpideekin betetzen du.

## Ebaluazioa


Proiektuaren ebaluazioa / berrikuspena

- Jarraipen-adierazleak sistematikoki erregistratu dira, plangintzan ezarritakoaren arabera.
- Jarraipenaren emaitzak proiektuaren exekuzioan lortutako emaitzak baloratzeko erabili dira.

## 4. Proiektuak orokorrean ezaugarritzea


Lanaren garapena, lehenengo fasean, espedienteen dokumentazioa berrikustea izan da. Hainbat dokumentu berrikusi dira: memoria teknikoa, exekuzio-memoriak, aurrekontuak, balantze ekonomikoak eta gastuak, eta lurraldea zaintzeko akordioak.

Diru-laguntzaren deialdi ezberdinetan, guztira, 54 proiektu garatu dira. Batez beste, deialdi bakoitzean 9 proiektu babestu dira. Diruz lagundutako proiektu kopurua pixkanaka jaisten joan da; 2011n 12 proiektu lagundu ziren, eta 2016ko deialdian 7.




1. irudia. 2011-2016 onartutako proiektu kopurua. Iturria: guk geuk osatua.

Gobernu autonomikoak zaintzeko akordioetan aipatu kontserbazio-proiektuak exekutatzeko 996.459 euro bideratu ditu (ikus eranskinean diru-laguntzak xehatuta, proiektuko eta urteko); guztizko zenbateko hori aztertutako 6 urteetako (2011-2016ko) deialdietan onartu da. Batez beste, proiektuko 18.452,94 euro bideratu dira, eta 2013 eta 2016 bitarteko proiektuen batez bestekoaren antzekoa da.



2. irudia. *Proiektu bakoitzeko batez besteko laguntza, eurotan, 2011-2016 aldian. Iturria: guk geuk egina.*


Guztira, 14 erakundek jaso dituzte laguntzak, gehienak gobernu kanpoko erakundeak, elkarteak eta fundazio kontserbazionistak, eta hiru udal-korporaziok. Erakunde horien artean, nabarmentzekoak dira Lurgai Fundazioa eta Aranzadi Zientzia Elkartea, beren proiektu kopuruagatik, 12 eta 13 proiektu garatu baitituzte, hurrenez hurren; bi erakundeen artean aztertutako laguntzen deialdiak babestutako proiektuen ia erdiak garatu dituzte (% 46,29). SEO/Birdlife eta Naturtzaindia Elkartea ere azpimarratzekoak dira, 7 eta 6 proiekturekin, hurrenez hurren.



3. irudia: *2011-2016 diru-laguntzak jaso dituzten erakundeek garatutako proiektu kopurua. Iturria: guk geuk egina*

Kasu askotan, erakundeek urteroko deialdiaz baliatu dira kontserbazio-proiektu beraren fase ezberdinak inplementatzeko, erakundeen jarduera-programan inkardinatuta egon ala ez –Lurgaia Fundazioaren Quercus Programaren kasua litzateke, deialdira aurkeztutako proiektu gehienek osatzen duten marko orokorra–. Diru-laguntzen bidez, baita ere, unez uneko proiektuak garatu dira, administrazioak interesgarritzat hartu eta deialdiaren markoan lagundu baitira.

Proiektuen ia erdia (% 48) Gipuzkoan garatu da, eta Araba eta Bizkaian garatu dira gainerako proiektuak. Ezin da zehaztu zenbatekoa izan den proiektuak exekutatu diren azaleraren zifra, datu hori deialdiaren azken urteotan egin diren proiektuetan baino ez baita zehaztu sistematikoki.



4. irudia. Diruz lagundutako proiektuen banaketa, Euskadiko lurralde historikoetan. Iturria: guk geuk egin.

Emandako diru-laguntzen biez, ondare naturalaren hainbat kontserbazio-ekintza garatu dira. Azpimarratzeko da baso-ekintza eta -suspertzeari buruzko lehenengo taldea, gutxienez 16 proiektu eginak (% 29,62). Horietan, bertako baso mistoa suspertu eta hobetzeko lanak egin dira (pagadia, hariztia, haltzak...). Hezeguneak (urmaelak, padurak) suspertu, hobetu eta sortzeko bigarren ekintza-talde bat ere garatu da, gutxienez, aztertutako 54 proiektutatik 16tan (% 29,62), eta horren helburua izan da espezie animalia batzuei laguntza ematea –bereziki anfibioak, baita narrastiak ere–. Hala, garatutako kontserbazio-ekintzen ia % 60 aipatu bi taldeen baitan egin da, jatorrizko basoa suspertzeko baso-ekintzak eta hezeguneak hobetzea bereziki anfibioen onurarako. Gainerako % 40ak barne hartzen ditu, besteak beste, honako ekintza hauek:

- Espezie inbaditzaileak kanporatzea.
- Nekazaritza-espazioetan heskaiak areagotzea.
- Flora eta fauna espezie ezberdinen azterketa eta jarraipena (kropteroak, hegaztiak...)
- Elementu natural bereziak seinaleztatzea

5. irudia: diruz lagundutako proiektuetan garatutako kontserbazio-ekintza nagusiak. Iturria: guk geuk egin.

Proiektu guztiak lurraldea zaintzeko akordioa duten jabegoetan exekutatu dira. Aztertutako lurraldea zaintzeko akordioak 20 urtetarako akordioen baitan egin dira. Batzuk baino ez dira garatu 10 urtetara, eta kasu batean baino ez da identifikatu akordioak 5 urteren baitan ezarri direla, automatikoki berritzeko beste 20 urte. Hain zuzen ere, ezarritako akordioak urte batzuetarako izateak badu bere azalpena: zaintzeko akordioen alorrean deialdiaren balorazio-irizpide bakarra –baita puntuazio-irizpide bakarra ere– horren indarraldia da: zenbat eta indarraldi luzeagoa, gero eta puntuazio altuagoa.

Akordioen indarraldiaren inguruko balorazioaz harago, deialdiak lurraldea zaintzeko akordioak sinatzea sustatu du, babestutako espazio naturalen barruan zein kanpoan, baina bereziki gertatu da babestutako eremuetan. Ziurrenik, horregatik da parametro hori proposamenak baloratzean deialdiko parametro positiboetako bat. Interpretazio horren oinarrian dago egiaztatu dela sinatutako akordio asko proiektuak garatu baino urte batzuk lehenago sinatu zirela, baita hilabete batzuk lehenago ere.

## 5. Proiektuak kontserbazio-estandarren bidez aztertzearen emaitzak

Jarraian xehetzen dira aztertutako 52<sup>1</sup> proiektuetan kontserbazio-estandarren arabera aztertzearen emaitzak, baita gomendioak aurreratu ere.

### 5.1. Alderdi orokorrak

Jarduerak eta erabakiak erregistratzea

Proiektu guztietan identifikatu dira proiektuaren fase ezberdinetako erregistro-dokumentuak, memoria teknikoan eta exekuzio-memorian. Ez dago, aldiz, aldizkako jarduteko memoriarik edo tarteko txostenik, proiektua amaitu baino lehen horren inplementazio-maila neurtzeko aukera ematen duenik edo, hala badagokio, programatutako ekintzak berriz formulatu edo berriz bideratzea ezar dezakeenik.

Hala badagokio, egokia litzateke baloratzea ea [memoria- eta proiektu-ereduan proposamen-aldaketaren tarteko txostenik txertatu den](#), aurreikusitako ekintzak berriz pentsatu edo berriz formulatu badira, edo programatutako ekintzak kendu edo, baita ere, ekintza berriak txertatzea pentsatu bada. Zalantzarik gabe, proiektuaren berformulazioan behar bezala azaldu eta justifikatu beharko da eta, ildo horretatik, egoera hori salbuespenezkoa dela ulertuko da. Ez da, inolaz ere, aplikatzeko arau orokorra izango.

Dokumentazioa: eskuragarri dagoen informazio onena erabiltzea

Proiektu guztiak bibliografia zientifiko eta tekniko anitza kontuan hartuta formulatu direla interpretatu da, eta hori erreferentzia zientifikotik hasi eta plangintza eta kudeaketarako dokumentu teknikoetara bitarte izan dela, besteak beste. Hala ere, aztertutako memoriak berrikustean, hauteman ahal izan da kasu askotan ez dela ezta erreferentzia bibliografikorik adierazi eta, beraz, kasu horietan parametro hori negatiboki baloratu da estandarra aplikatzean. Memoria estandarizatuarekin batera memoria zabalagoa txertatu den kasuetan, gehitu dira erreferentzia dokumental eta zientifikoak eta, beraz, horiek positiboki baloratu dira. [Memoriaren txantiloian baloratu behar litzateke oinarri edo dokumentazio zientifiko-teknikoa duen derrigorrezko atala](#), bertan oinarritu ahal izateko kontserbazio-proiektuaren diseinua eta osaera.

Erakundeen laguntza

Hasiera batean, arduradun politikoen babes edo konpromisoa baloratzea pentsatu zen baina, azkenik, ideia hori baztertu egin zen, diru-laguntzen deialdia bera babes politikoaren isla gisa ulertzen baita. Erakundeen laguntza funtsezkoa da lurraldea zaintzeko inplementazio eraginkorrerako (Ruiz, A. et al, 2018), eta hori derrigorrezko baimen administratibo eta jarduteko lege-gaitasunean gauzatzen da; positiboki baloratu da aztertutako proiektu guztietan. Bereziki hartu da kontuan lurraldea zaintzeko akordioa egotea, erreferentzia-marko orokor gisa. 2015eko deialdian eskatzaileei eskatu zitzaizen egiazta zezaten aplikatzekoak diren baimen guztiak zituztela.

Gizarte-laguntza: parte-hartzea

Kasu batzuetan ez dira zuzeneko eragilean identifikatu, baina hori ondoriozta daiteke lurraldearen hainbat jarduera eta erabilera aipatzean (baso-ustiapena, abere-erabilerak,

---

<sup>1</sup> Ezin izan dira diruz lagundutako 54 proiektuetatik 2 aztertu, erreferentziazko dokumentazioa euskaraz baino ez zegoelako.

nekazaritza-praktikak...). Hala ere, eta orokorrean, hein batean identifika daitezke proiektuarekin lotuta egon daitezkeen gizarte-eragileak eta, gutxienez, lurraldea zaintzeko akordioa ezarri den lursailen jabeen egiten diete erreferentzia. Kasu batzuetan baino ez dira espresuki adierazi zeintzuk diren esku hartzen duten eragileak (EUROPARC, España 2014) memoriaren atal berean (proposamen-memorian) identifikatutako eragileak edo neurriren batean parte hartu duten eragileak (justifikazio-memoria). Proiektu batzuetan, jabeen esku-hartzea esplizituki adierazi da, laguntza jaso duen erakundearekin elkarlanean, jarraipen-lanetarako, eta hori positiboki baloratu behar da.

Laguntza-deialdian, [memoria-proiektu ereduan, proiektuarekin lot daitezkeen eragileak identifikatzeko berariazko atala egon eta mantendu beharko litzateke](#). Gainera, proiektuan eraginkortasunez esku hartu duten baloratu beharko litzateke. Identifikazio orokorregia ekiditeko (“herritarrak, orokorrean”), [kategoria itxiak txertatzen diren baloratzea](#) proposatzen da (gizarte zibil antolatua, tokiko korporazioak, jabeak, eskolak, beste batzuk).

Aurrekoaren ildotik, lurraldea zaintzeko akordioa sinatu duten jabeek esku hartzea bereziki nabarmentzekoa da, akordioaren kontraparte pribatua. [Gomendagarria da hautagaitzetan baloratzea, eta, beraz, ebaluazioan txertatzeko irizpide esplizitua litzateke, proiektuaren exekuzioan jabegoaren parte-hartze aktiboaren maila, programatutako ekintza batzuen abiaraztean, proiektuaren emaitzen jarraipenean...](#) (Ruiz, A. et al. 2018). Hautagaitzak diseinatzean, gomendagarria litzateke, eta hobariak jasotzeko arrazoia (nahiz eta derrigorrezkoa ez izan), programatutako ekintzetan, ekintza batzuetan, jabegoen esku-hartze eta parte-hartze aktiboa zehaztea, zaintzeko akordioaren baitako sarbide erraztea eta “egiten uztea” kontzeptuetatik harago.

Emaitzen komunikazioa eta hedapena

Hedapen- eta zabaltze-ekintzak txertatu dituzten proiektuetan, argi eta garbi identifikatu dira nortzuk izan daitezkeen hartzaileak; aldiz, beste proiektu askotan, komunikazio-ekintzak espezifikoki txertatu ez dituztenetan, ez dira hartzaileak behar bezala dokumentatu. Kasu batzuetan, hartzaileak ondoriozta daitezke, baina ez kasu guztietan. Maiz hartzaileen definizioa orokorregia da (tokiko biztanleriari erreferentzia orokorrak, herritarrak edo bisitariak, memoriaren edozein ataletan aipatuta). Aurreko atalean adierazi moduan, [gomendagarria da komunikazio- eta hedapen-ekintzetarako hartzaileak definitzeko kategoria itxiak ezartzea](#) (gizarte zibil antolatua, tokiko korporazioak, jabegoak, eskolak, beste batzuk).

[Gomendagarria litzateke hartzaileak zehatzago identifikatzea proiektuetan](#), komunikazio-ekintzen hartzaileak, proiektuan programatu badira ere. Ildo horretatik, positiboa litzateke, baita ere, [laguntzen deialdiak babestutako proiektuetan komunikazio-ekintza bat, gutxienez, txertatzea, baita aurrekontuaren % 10, gutxienez, komunikazio-ekintzetara bideratzea](#) (EUROPARC-España, 2007; Hesselink, F.J et. al. 2007)

## 5.2. Plangintza

Epe luzerako helburuak

Orokorrean, proiektuarekin jorratu nahi den ondarearen espezieak, habitatak, ekosistemak, prozesuak eta elementuak identifikatu dira, proiektuaren amaierako xedea definitu da, eta hori funtsezkoa da plangintzari dagokionez (EUROPARC-España, 2018). Proiektua diseinatu eta inplementatzeko beharrezkoak edo aukera justifikatzen dituzten arrazoiak ere definitu dira. Aldiz, orokorrean, proiektu gehienetan ezin da egiaztatu ez dagoela kontraesanik proiektuaren helburuen eta maila altuagoko plangintza-dokumentuen artean.

Orokorrean, gomendagarria da [zaintzailtza-erakundeek laguntza-eskaeran adieraztea ea ekintza epe ertain/luzeko kontserbazio-estrategia edo -programa baten baitan egiten den, eta nola ebaluatuko den helburuak lortu direla, aipatu ekintza amaitu eta administratiboki justifikatu ondoren.](#)

#### Diagnostikoa

Aztertutako proiektu gehienetan proiektuen ekintzak egingo iren elementu nagusiei eragiten dieten arazo, mehatxu eta aukerak identifikatu dira, baina adierazi behar da diagnostikoaren xehetasun maila oso aldakorra dela proiektuaren arabera. Hala ere, aztertutako memoriari kontsultatuta, ezin da egiaztatu proiektuaren bideragarritasunari eragiten dioten kanpoko baldintzarik dagoen ala ez. Beste era batera esanda, ezin izan dira dokumentatu aipatu kanpoko baldintzak aztertutako proiektuetan.

Bestalde, proiektuetan ezarri da lortu nahi den kontserbazio-egoera, edo horren baliokidea, baina hori jasotzen den atala aldatu egiten da memorian, baita kontserbazio-egoera nola definitzen den ere. Kasu askotan lortu nahi den joera da adierazten dena, proiektuari esker lortu nahi dena.

[Berriazko atal bat txertatu beharko litzateke proiektuaren ekintzak egingo diren eremuetako funtsezko elementuen kontserbazio-egoerari buruz.](#)

#### Helburu operatiboak

Aztertutako proiektuetan helburu operatiboak adierazi dira, orokorrean, baina ez dira kasu guztietan definizio-maila berdinak erabili. Adierazpenean, kasuren batean proiektuaren ekintzekin nahas daitezke.

#### Ekintzen definizioa

Proiektu gehienetan ulertu da ekintza eta helburuen arteko lotura esplizitua dela, baina adierazi behar da behar bezala eta oso-osorik proiektu batzuetan baino ez dela adierazi. Bestalde, ez da beti memoriaren atal berdinetan agertu. Kontserbazio-estandarraren aplikazioaren balorazioa, kasu honetan, positiboa izan da.

Proiektuetan ez da aurreikusi ekintza bakoitzaren kostu ekonomikoa, ziur aski, ez delako hala ezarri laguntzak deitzeko oinarri arautzaileetan. Beraz, ekintzen balorazio orokorra aplikatu da, aurrekontua eta gastuen balantzea kontuan hartuta, eta positiboki baloratu da deialdiaren ebazpenean jasotako aurrekontu edo zifra kontuan hartu denean –aurrekontua proiektuen espedientean ager daiteke ala ez–. Bestalde, finantzazio-iturriak esplizituak dira eta diru-laguntzan bertan kasu guztietan zehazten dira, erakunde onuradunak bere gain har dezakeen zatiarekin batera, hala badagokio. Ez da beste finantzazio-iturri erreferentzia egiten dien proiekturik identifikatu.

Proiektu gehienetan ez dira aurreikusi ekintzen ingurumen-ondorioak eta dagozkien neurri zuzentzaileak. Kasu batzuetan, inbaditzaileak kanporatzeko ekintzetan adibidez, ondorioak nolabait aipatu dira, modu orokorrean.

Kasu guztietan hartu dira kontuan tokiko erabilera eta eskubideak, gutxienez, lurraldea zaintzeko akordioan ezarritakoak.

#### Jarraipen-planaren diseinua

Jarraipena ebaluazioaren funtsezkoa alderdia da (EUROPAR-España, 2005). Aztertutako proiektu gehienetan adierazleen zerranda aurkeztu da, urria kasu askotan, garatutako ekintzen emaitzak ezagutzeko. Hala ere, adierazleei dagokien informazioa maiz ez da erraza aurkitzen



memoria tekniko eta justifikazio-memorian. Proiektu batzuen kasuan, informazio hori jaso da, gomendagarria denez, laburtutako taula batean. Adierazleen zerrenda ekintzen deskribapenean txertatu beharko litzateke, baina ez da beti hala, kasu askotan ez baita memoria deskribatu, baina justifikazio-memorian agertzen dira.

Adierazi denaren ildotik, [gomendagarria da proiektu-memorian berariazko atala eskaintzea adierazleen zerrenda jasotzeari](#), bertan adierazteko memoria teknikoan eta proposamen-memorian identifikatuta adierazleak exekuzio-memorian agertzen direnak izan behar direla. Proiektuan zehar adierazle berriak identifikatzen badira, dagokion justifikazioa eskaini beharko da.

### 5.3. Exekuzioa

Estandarrean horri buruzko atalik ez badago ere, nabarmentzekoa da, hasiera batean, aztertutako proiektu batzuetan ez datozela bat memoria teknikoan programatutako ekintzak eta proiektuaren exekuzio-hobekuntzan aurkeztutako ekintzak; proiektuaren jatorrizko diseinuan programatu ez diren ekintzak ere agertu dira. Ziur aski aurreko horrekin lotuta, eta hori kontserbazio-estandarrean analisirako parametrotzat hartu da, ekintzak abiarazteko ekintza eta urratsak ez dira, orokorrean, dokumentazio bidez erregistratu.

Proiektuetan ez da ekintza bakoitzaren kostuen zerrenda xehetu, salbuespenen batean izan ezik; bertan kostuen xehetasunak adierazi dira. Balorazioa egitean, kontuan hartu da ea ezberdintasun nabarmenak dauden hasierako aurrekontuaren eta exekutututako benetako gastuaren artean. Orokorrean, exekutututako gastuak eta proiektuaren proposamenean adierazitako aurrekontua bat datoz, eta ezberdintasunik badago, partiden banaketari dagokio, eta berau behar bezala justifikatu da.

[Eskaeretan, aurrekontuetan, garatu beharreko ekintza bakoitzarentzako kostuak ezberdintzea eska daitekeen baloratu beharko litzateke](#), hori baita ekintza bakoitzaren kostu zehatzak ezagutzeko modu bakarra. Hori kontuan hartu beharreko proiektuen diseinu eta plangintzarako gomendio orokorra da (EUROPARC-España, 2011).

Proiektu zahar askotan ez dago aurrekontu xehearen espedienterik, baina deialdien ebazpenetan guztizko aurrekontua zerrendatu da. Balantze ekonomiko eta gastuei dagokien dokumentuarekin bakarrik ezin da dagokion alderaketa egin. Kasu horietan, alderdi hori negatiboki baloratu da estandarra aplikatzean.

Programatutako ekintzak proiektuaren exekuzio-epan garatu dira, baina kasu gehietan ikusi ahal izan da ekintzak programazioan aurreikusitako epea baino beranduago amaitu direla. Kasu horietan, eta ezin izan denean egiaztatu (lehenengo urteetako proiektuetan, adibidez), alderdi hori negatiboki baloratu da kontserbazio-estandarra aplikatzean. 52 proiektuetatik 3tan baino ez da baloratu parametro hori positiboki (% 5,76).

Proiektu gehienetan, jasotako informazioarekin (memoria), ezin izan da egiaztatu ekintzek ingurumen-ondorio negatiboak dituzten ala ez. Parametro hori positiboki baloratu da, bakarrik, ekintzaren ingurumen-ondorioak kontuan hartu direla esplizituki adierazten den kasuetan.

Azkenik, kasu guztietan lurraldea zaintzeko akordioa dagoela kontuan izanik, ekintzak tokiko erabilera eta eskubideak kontuan hartzeko eskatzen diren gutxiengo irizpideak betetzen dituztela ulertu da. Kasu batzuetan, beharrezkoa izan da bestelako baimenak eskatzea

(obrarako baimena edo administrazioak onartu beharreko txostenak), azken deialdietako proiektu batzuetan.

#### 5.4. Ebaluazioa

Ebaluazioaren atalean, proiektu gehienak positiboki baloratu dira, jarraipen-adierazleen erregistroari dagokionez, baita lortutako emaitzen balorazioan jarraipenaren emaitzen erabilerari dagokionez ere (EUROPARC-España, 2011). hala ere, proiektuen ezaugarriak direla eta, ebaluazio-baldintzek, proposamenetan eta exekuzio-memoretan, badute zer hobetu.

Orokorrean, proiektuen ebaluazioa hartu da kontuan, praktikan nahi beste garatu ez bada ere; izan ere, memorian ez du beti berriazko atala izan. Kasu batzuetan baino ez dira espresuki adierazi talde ebaluatzaileak berrikusitako dokumentazioan adierazleak barne hartzeko jarraipen-txosten edo memoriak, azkenik aipatu adierazleetan lortutako emaitzen balorazioa justifikatzeko.

Ohartarazi behar da, baita ere, azken deialdietan aztertutako proiektuetan baino ez dela aurkitu informazio hori jasotzen duen epigrafe edo atal espezifiko, zehazki jarraipen-adierazleak, eta horiek oso urriak izan ohi dira. Ohikoa da informazio hori memoria teknikoan eta emaitzen memorian sakabanatuta agertzea, ez da beti ekintzak deskribatzen diren memoriaren zatian agertzen; hortaz, analisia eta jarraipena egitea zaildu eta proiektuaren diseinuari sendotasuna kentzen dio. [Adierazle-sistema ebaluatzeko garrantzitsua denez, baita hori kontuan hartzea ere proiektuaren emaitzak baloratzean, berretsia da proiektu-ereduan berriazko atala izatea, baita azken deialdietan txertatutako ebaluazio-atala ere. Posible den kasuetan, kontserbazio-egoeraren bilakaeran desiragarriak diren ekintza edota joeren arrakasta neurtzeko mugak zehaztuko dira, kuantitaboki zein kualitatiboki.](#)

#### 5.5. Kontserbazio-estandarra aplikatzearen emaitzen laburpena

Proiektuek, orokorrean, oso puntuazio jaso dute, eta azpimarratzekoa da 11 proiektuek bakarrik, guztizkoaren % 21,15ek, lortu duela 60 puntu baino gutxiago, 100 puntutatik. Beste muturrean, 10 proiektuak, % 19,23k, lortu du 80 puntu baino gehiago (ikus II. eranskina).


Aztertutako proiektuen batez besteko balioa, 52 izan dira guztira, 71 puntukoa izan da (70,59). Guztira, 29 proiektu, gutxi gorabehera proiektuen % 55,72, puntuatu dira batez bestetik gora, eta 23 gelditu dira batez bestekoaren azpitik. Moda kontuan hartuta, 77koa da, eta hogeiei proiektu daude balio horren gainetik, % 42,30, eta 32 proiektu gelditu dira aipatu balioaren azpitik.

Kontserbazio-estandarrean kontuan hartutako lau azterketa-taldeetatik –alderdi orokorra, plangintza, exekuzioa eta ebaluazioa–, okerren puntuatu den alderdia proiektuen exekuzioa izan da (ikus 4. irudia). Batez beste, exekuzioak 48 puntu jaso ditu (47,69), eta 35 proiektuk jaso dute, % 67,30ek 40 puntu baino gutxiago. Beraz, horixe da hobetu beharreko alderdia.

Ebaluazioa, orokorrean, positiboki baloratu da (izan ere, hori da hoberen baloratu den estandarren analisiaren alderdia, batez beste 79,80 puntu), atal horretan bi gai baino ez baitira ebaluatzen eta, beraz, alda daitezkeen tartea txikiagoa da. Azpimarratu behar da, aurrez aipatu den moduan, atal horretan hobetzeko tartea nabarmena dela (ebaluazio-sistematik dagoen baino ez da kontuan hartu, eta ez ekintzen emaitzak baloratzeko erabili den), eta hori hobe daiteke adierazle-eta jarraipen-sistemeekin emaitzen balorazioari buruzko berriazko atala gehituta.

Azkenik, estandarren emaitzen alderaketa-analisiak islatzen du lehenengo deialditako proiektuak direla balorazio okerrean jaso duten proiektuak; ez zegoen, deialdia egindako administrazioaren aldetik, memoria-txantiloik, eta horrek hartzen ditu kontuan, berriaz, kontserbazio-estandarrek

barne hartu beharreko atalak. Puntuazio baxuena jaso duten 17 proiektuak kontuan hartuta, 71eko batez besteko balioaren azpitik azken deialdietako proiektu bat baino ez da agertzen (2016).



6. irudia. Aztertutako proiektuentzako ekintzen emaitza globalak, ebaluazio-blokeen arabera.

## 6. Gomendioak

Jarraian xehetu dira ondorio eta gomendio nagusiak, proiektuen analisiaren emaitzetan oinarrituta, bereziki kontserbazio-estandarren analisiaren emaitzetan. Hurrengo laguntzen oinarri arautzaileak osatzerakoan, honako gidalero eta irizpideak kontuan hartzea proposatzen da, bereziki proiektuen balorazioari dagokionean. Egoki iritzi da gomendioak memoria teknikoaren eta justifikazio-memoriaren eredian txertatzea.

### Memoria teknikoaren eta justifikazio-memoriaren proposamena

Jarraian xehatzen dira memoria teknikoaren dokumentua, diru-laguntzaren proposamena eta dagokion aurrekontua egituratzeko atalak. Justifikazio-memoriak, hasiera batean, memoria teknikoaren informazio bera behar luke izan, eta atal ekonomikoan balantze ekonomikoa eta gastuen justifikazioa txertatu beharko lirateke.

#### Erakundearen datuak

- Izena
- Izaera juridikoa
- Erakundearen xedeak, estatutuetan jasotakoaren arabera
- Helburu soziala
- Jarduteko eremua
- Bazkide kopurua
- Boluntario kopurua
- Aurreko urteko jardueren memoria, erakundeak onartuta. Bereziki azpimarra daitezke erakundearen epe ertainerako programak, deialdira aurkezten den proiektuarekin lagundu daitezkeenak.

#### Proiektuaren datu teknikoak

- Proiektuaren izena.
- Proiektuaren koordinatzaile teknikoa.
- Eremu geografikoa: Lurralde Historikoa, udalerria eta lursailaren kokapena. Jarduera egingo den azalera, hektareatan.
- Dokumentazio zientifiko-teknikoa. Proiektuaren oinarri diren dokumentazio zientifiko-teknikoari erreferentziak.
- Gaia, justifikazioa eta aplikagarritasuna.
- Kokatutako ingurumen-problematika: jarduera burutu den lursailaren deskribapena, aurkeztu den ingurumen-problematika (plano eta krokisak gehituko dira, proiektuaren ezaugarriek hala ahalbidetzen badute).
- Helburu orokorrak
- Berriazko helburua (egiaztagarriak, neurgarriak eta eskuragarriak). Horiek bete diren neurtzeko informazioa eman behar dute (adierazleak).
- Eremu handiagoko beste plan eta proiektuei eskaintzen dien laguntza (erabilera eta kudeaketarako plan gidaria, Red Natura 2000 kudeaketa-tresnak, espezie eta habitaten kontserbazio-plana...).
- Beharrezko baimenak. Zaintzeko akordioaz gain, hala badagokio, bestelako beharrezko baimenak identifikatzea.

#### Parte hartzen duten langileak

- Parte hartuko duten pertsona kopurua.

- Erakunde parte-hartzaileak edo kolaboratzaileak: erakundeen zerrenda, proiektuan duten funtzioa identifikatuta.
- Lurraldea zaintzeko akordioaren kontraparte pribatuaren esku-hartzea. Kontraparte pribatuak, zaintzeko akordioa sinatu duen jabegoak proiektuan izan duen parte-hartze aktiboa neurtzea da.

#### Proiektuaren exekuzioa

- Aurreikusitako kontserbazio-ekintzen laburpen-taula eta kronograma.
- Programatutako ekintza bakoitzaren deskribapena eta metodologia (plano eta eskemak gehituko dira, proiektuak hala ahalbidetzen bada). Exekuzioa nahikoa deskribatzea.
- Programatutako komunikazio-ekintza. Proiektuak, gutxienez, komunikazio-ekintza bat izatea baloratuko da.
- Komunikazio-ekintzen hartzaileak (gizarte zibil antolatua, tokiko korporazioak, jabegoak, eskolak, beste batzuk).
- Jarraipen-metodologia, adierazle-identifikazioa (zerrenda sistematikoa) eta proiektuaren ebaluazio orokorra. Posible den kasuetan, ekintzen arrakasta neurtzeko mugak zehaztuko dira (adibidez, basoa suspertzeko proiektuetan kimuen biziraupen-tasa), kuantitaboki zein kualitatiboki.
- Proiektuaren bideragarritasuna kolokan jar dezaketen kanpoko baldintzak baloratzea eta, hala baldin bada, horiek ekiditeko neurriak definitzea.
- Proiektua exekutatzeari gerta daitezkeen ingurumen-ondorio negatiboak baloratzea eta, hala bada, horiek ekiditeko neurriak definitzea.
- Justifikazio-memorian, abiarazitako ekintzekin nola jarraituko den adieraztea, eta ekintza amaitutakon epe ertain/luzerako helburuak lortzeko ebaluatzen jarraituko den adieraztea.
- Aldaketak jakinaraztea. Programatutako ekintzak berriz osatu edo horiek baztertzea beharrezkoa den kasuan, edo ekintza berriak txertatu nahi badira, beharrezkoa izango da proiektuaren exekuzio-egoera azaltzea eta behar bezala arrazoitzea ekintzen programazioan egingo diren aldaketa. Ekintzen programazioan egindako aldaketak jakinarazi egingo dira, eta txosten bidez aurretiaz justifikatu.
- Erakunde eskatzaileak proiektuarentzat eskuragarri dituen bitarteko naturalak, giza baliabideak eta antolakuntzazkoak.
- Sortzea aurreikusi den materiala.
- Erabiliko den hizkuntza.

#### Aurrekontua

- Diru-sarrerak
- Gastuak
- Kostuak xehatzea, proiektuaren ekintza bakoitzeko. Proiektuak baloratzean, positiboki baloratzea proposatzen da ekintza bakoitzaren kostu espezifikoa xehatzen duten proiektuak. Hautazkoa izan daiteke, baina positiboki baloratuko da berau ebaluatzean.
- Komunikazio-ekintza. Ebaluatzean, positiboki baloratuko da komunikazio-ekintzak txertatzea, proiektuaren gutzizko aurrekontuaren % 10ekoak, gutxienez.

## Lurraldea zaintzeko akordioak

Hiru irizpide ezartzen dira proiektuen ebaluazioa zaintzeko akordioak neurtzeko:

- Akordioen indarraldia. Ebaluazioan behar bezala funtzionatu duen parametroa da, eta horri eustea proposatzen da. Zaintzeko akordioa, gutxienez, 20 urtetarakoa izatea positiboki baloratzea proposatzen da ebaluazioan.
- Akordioaren kontraparte pribatuak proiektuan esku hartzea. Positiboki baloratzea proposatzen da jabegoak proiektuaren exekuzioan parte-hartze aktiboa izatea, ekintza bat edo gehiagotan, baita jarraipen-lanetan ere. Hori jauzi handia da, eta deialdiaren filosofiari sendotasuna ematen dio, baita gobernuz kanpoko erakundeentzat deitzen diren beste laguntzetatik bereizi ere. Bestalde, parte-hartze hori sustatzeko aukera ematen du, jabegoaren esku-hartze txikiagoa eskatzen duten beste formulen aldean, alokatu edo erabilera-eskubideak erostearen aldean (ikus 7. irudia).

Costes para la entidad de custodia crecientes, implicación de la propiedad decreciente



7. irudia. Lurraldea zaintzeko aukerak eta tresnak. Iturria: Sabaté, X. et al., 2013.

- Positiboki baloratuko da zaintzeko ekintza epe ertain/luzeko kontserbazio-estrategia edo -programa baten baitan kokatzea, zaintzailtza-erakundeak berak sustatuta edo ingurumen-administrazioek sustatuta. Kasu horietan, zaintzailtza-erakundeak adierazi egingo du zeintzuk diren estrategia/programa horren helburuak eta nola ebaluatuko dituen ezarritako epean ezarritako helburuak.

## Epe ertain eta luzerako ebaluazioa

Diru-laguntzaren aginduaren objektua urte batean exekutututako kontserbazio-ekintzak direnez, interesgarria da Administrazioak zaintzeko akordioen eta ekintzen exekuzioarekin lortutako helburuak epe ertain/luzera lortu diren ebaluatzea. Horren helburua da diru-laguntzen aginduen eraginkortasuna baloratzea, natura kontserbatzeko finantza-tresna gisa.

## 7. Erreferentziak

Campos, S.; Herrera, PS.; Bustos, R.; Majadas, J. eta García Fernández, J. 2015. *Integración de la custodia del territorio en la planificación y gestión de las políticas de conservación de la naturaleza*. Madril. Fundación Biodiversidad.

CMP. 2004. *Open Standards for the Practice of Conservation*. The Conservation Measures Partnership.

Day, J.C, y Laffoley, D.d'A., 2006. *Self-assessment checklist for building networks of MPAs*. WCPA IUCN.

Dudley, N. 2006. *Protected areas and certification*. IUCN Environmental Law Programme.

EUROPARC-España. 2005. *Diseño de planes de seguimiento en espacios naturales protegidos*. Manual 2. Madril. Fundación Fernando González Bernáldez.

EUROPARC-España. 2007. *EnREDando. Herramientas para la comunicación y la participación social en la gestión de la Red Natura 2000*. Manual 4. Madril. Fundación Fernando González Bernáldez.

EUROPARC-España. 2008. *Planificar para gestionar los espacios naturales protegidos*. Manual 7. Madril. Fundación Fernando González Bernáldez.

EUROPARC-España. 2011. *Guía de aplicación del estándar de calidad en la gestión para la conservación en espacios protegidos*. Madril. Fundación Fernando González Bernáldez.

EUROPARC-España. 2014. *ESPARC 2014. Actas del XVIII Congreso de EUROPARC-España. Áreas Protegidas: patrimonio global y beneficios locales*. Madril. Fundación Fernando González Bernáldez.

EUROPARC-España. 2016. *Programa Sociedad y Áreas Protegidas 2020. Áreas protegidas para el bienestar humano*. Madril. Fundación Fernando González Bernáldez.

Foro Estatal de Redes y Entidades de Custodia del Territorio. 2016. *Resultados finales VI Jornadas estatales de custodia del territorio (2-5 noviembre 2016)*.

Fundación Biodiversidad. 2015. *Informe del 4º Inventario de Iniciativas de Custodia del Territorio del Estado español*. Plataforma de Custodia del Territorio. Fundación Biodiversidad.

Hesselink, F.J. et al. 2007. *Comunicación, Educación y Conciencia Pública. Una caja de herramientas para personas que coordinan las Estrategias y Planes de Acción nacionales sobre diversidad biológica*. UICN. Montreal (Kanada).

Hockings, M.; Stolton, S. eta Dudley, N. 2000. *Evaluación de la eficacia. Marco de referencia para la valoración de la gestión de áreas protegidas*. Series sobre mejores prácticas en áreas protegidas Nº 6. UICN, Gland, Suitza eta Cambridge, UK.

IUCN-CMP. 2006. *Unified Classification of Conservation Actions*. IUCN and The Conservation Measures Partnership.

Ruiz, A., Navarro, A. eta Sánchez, A. 2018. *Libro blanco construyamos el futuro de la custodia del territorio*. Madril. Foro de Redes y Entidades de Custodia del Territorio.

Rotherdam, T. 2001. *Raising standards: IUCN and the future of ISO 14001, Issues and options*. <http://economics.iucn.org/issues-09-01>

Sabaté, X., Basora, X., O'Neil, C. eta Mitchell, b. (2013). *Conservar la naturaleza entre todos. La custodia del territorio, una herramienta para implicar la sociedad en la gestión del patrimonio natural en Europa*. Documentos LandLife. 2013ko 1. edizioa.

<https://www.landstewardship.eu/support/download-archive>

Xarxa de Custòdia del Territori (2014). *La custòdia del territori. Una oportunitat per a la gestió de finques privades*. XCT.



## I. eranskina: Azken deialdietan erabilitako memoria-eredua

### **Erakundearen datuak**

Izena

Izaera juridikoa

Erakundearen xedeak, estatutueta jasotakoaren arabera

Helburu soziala

Jarduteko eremua

Bazkide kopurua

Boluntario kopurua

Aurreko urteko jardueren memoria, erakundeak onartuta **Proiektuaren datu teknikoak**

Proiektuaren izena

Proiektuaren koordinatzailea teknikoa

Eremu geografikoa: Lurralde Historikoa eta udalerrria.

Gaia, justifikazioa eta aplikagarritasuna.

Kokatutako ingurumen-problematika: jarduera burutu den lursailaren deskribapena, aurkeztu den ingurumen-problematika (plano eta krokisak gehituko dira, proiektuaren ezaugarriek hala ahalbidetzen badute).

Helburu orokorrak

Berariazko helburua (egiaztagarriak, neurgarriak eta eskuragarriak).

Beharrezko baimenak. Zaintzeko akordioaz gain, hala badagokio, bestelako beharrezko baimenak identifikatzea.

Beste erakunde kolaboratzaileak.

### **Proiektuaren exekuzioa**

Egindako programaren eskema eta tenporalizazioa

Programatutako ekintza bakoitzaren deskribapena eta metodologia

Ebaluazio eta emaitzentzako metodologia.

Erakunde eskatzaileak proiektuarentzat eskuragarri dituen bitarteko naturalak, giza baliabideak eta antolakuntzazkoak.

Sortutako materialak

Hizkuntza

### **Aurrekontua**

Diru-sarrerak

Gastuak